



ETXE

-ARDUREA

Etxe-bafuba zuzenduteko ta sendija ondo erabilteko, trebetasun edo ganora andija biar-fa. Trebetasun ori emakumiai dagokijoe ta neskatiak astiz ikasi biar-fabe. Beragaz etxekanderek jaritxiko dabe euren etxietan nasaitasunik andijena lazka edo gasturik txikijenagaz; baña ofetarako emakumiai ixan biar-dira arautubak, usnadunak, garbijak eta lantzaliak.

Zubek, euzkeldun neskatiak, garbijak eta lantzaliak zariela bai-dakit. Eta arautubak ixan gura ba-dozube, entzun egixubez ufengo onu edo kontisejubak:

Ingurazti (*cuaderno*) bat erosi egixube, ta bertan idatzi egixube, lenengo, aitzeko daukozuben gustija, lendik jakin al ba-dozube; ta, gero, eralgi edo gastau egin biar-dozubena. Baña aitzekua zenbatutian, zarien baño aberatsaguak zariela-ta ez ametsik egin; *ba' lite' tik bai-da' ra' zati zafeze, ba' lite' ko* oteak eztaulako burdiñik emoten; eta zuben gastuak, daukozubentzaz atondu egixubez, ez itzaroten dozubenatzaz.

Jakin al ba-dozube zenbat aitzeko dozuben urte osuan, kopuru ori zatitu egixube ta ikusi zenbat eralgi al-dozuben ilian eta egunian, eta gero ez geyagorik eralgi.

Eta aitzeko dozubena naikua ezpa-da zuben biar-ixana betetako, lan egixube, diruba irabazi egixube. Gixasemiak eztira txiro edo *pobriak* ezer eztaukelako, lanik egiten eztafelako baño. Lafegi eralgiten dozubelako, zuben zizkuban utsuniak egi-

fen ba-dozubez, zofak egin biarko dozubez. ¡Ai, orduban, zuben zorigatxa! Zofak bixitxa ilundu, poza mingoitza ta etxiak ondaturten dabez. Zofa etxian, soñekuan ufadurea laxoxia da: berialaxe adabatuten ezpa-da, andijagotu egiñen da.

Guenez; al-dozun gustijetan esku-diru erosi egixu: obeto ta merkiago erosiko dozu, ta eztozu daukozuna baño geyako eralgiteko bildurik ixango.

Etxekandera arautubak, egunian-egunian egindako lazka edo gastubak inguraztixu baten idazten dabez. Baña arazo asko daukelako, oitu biar-dira oeratu baño len eguneko lazka gustijak idazten.

Erabako etxekandereak itanduten dabe askotan, zetarako balijo ete-dau gastuak idaztiak? zñobera ixutu-erazoteko ete? eginda egiña ta eralgitakua ezta bigurtuko, ba. Au esaten dabenak okef dagoz. Gastuak idazten diranian edonoz ikusi lefeke zenbat eralgi dan, eta asteren baten eralgitakua erabagitakua baño andijagua ba-da, ufenguan gitxijago eralgiten da, ta onelan, urtia amafuta zeózer auzetu dala ikusizkero, jete-kanderearen poza ixaten dan andija! Baña bestetara jazo ba-da, jete-kanderearen zorigaitzia!

Inok esan dau ondo baño obeto: dagona baño geyago eralgitia, zoruaren egiñena da; dagon gustija eralgitia, zentsunbakuarena, ta dagona baño gitxijago eralgitia zufarena.

ETXAKIN.

Legoya ta igela

Legoyak alako batean entzun zuban diadarka etetzen ari zan igelaren otsa, ta abere andiyen bat zalakoz, abots-alderantz egin zuban. Piskatean zai egonda, aintziratik irtetzen ikusi zuban igela, ta auferatu zanian oin-pian zapaldu zuban legoyak.

Ipuin onek erakusten digu gauzen otsaz bakarrik ez estutze-ko, berak ikusi arte.

Euzkeldunaren jakin-biarak

1.^a Euzkotafa: gosiaz-edo, biar-biara ezpa-dozu, etzadiz Euzkadi'tik aldendu. Itundik al ba-dozu, zure uri-baserijan bixi zadiz, beintzat, Euzkadi'tik alde-egin-bagerik.

2.^a Urez-andira juan diran geyen-geyenak damutu dira, belu, baña. ¿Eztakixu, ba? «Atzerija lufa garatz: ona ipini egik marat».

3.^a Juan-biar-biara ba-dozu, Txauaburu (*Párroco*), Endore (Aikate) edo beste gixon aflu batekin itundu zadiz; baña urtetia erabagi baño len, eta gero be bai.

4.^a Ondo oldoztuta gero, urez-andiratzia erabagiten ba-dozu, jakixu Abando'n, *Principe*-kalian, 4'garenian, «San Rafael»-ixena daun Bazkunaren ordezeko etxia dagola.

5.^a Zerori bertaratu ezin ba-zara, idatzi egikezu zerofek edo efiko Txauaburu, Endore naiz beste batek.

6.^a Etxe ofetarik, biar-dozun gusti-gustija atzaldubaz, aitez erantzungo dautzube.

7.^a Gero lagunduko dautzube onexetan: a) eldu gura-zaran tokijan zetera bixi-diran esanaz; g) juateko biar-dozuzan agirijak ziaz ixendatubaz; k) biderako juan-txartela atarateko eferzasun andijak emonaz; y) itxasoratzecko elduko zaran uriko geldokira (*estuzinora*) zure bila urten eta urijan egin biar-dozuzan egunetarako ostantu merkia ta ona geftabaz; j) bertan ondo jafi zadixantzat itxas untzirano zeukin juanaz; l) Txauaburu, Endore ala ezagunen batek zutzaz txosten onak emon ba-dauz, eltzen zaran tokirako, an bixi-diran zerbait al-dabenai zure aldez itz-egina.

8.^a Etxe-ordezkarira idatziko ba-dozu, garbi jafi egixuz onexek: zure ixen-abixenak; jayoterija; nun bixi-zaran; gixasemetasuna; adia; ezkongia, ezkonduba ala alarguna zaran; bixi-bidia; idazten eta irakurten dakixun; guda-egokerea; ta eltzen zaran tokijan zein bixibide aitzeko ustia dozun.

9.^a Eraz dozu-ta, gusti au egingo ba-dozu, lazka edo *gastu* ta burukomin asko be gitxijago ixango dozu, ta ofelako aldijetan zu ogendaldu edo *enganetako* eldu leikeuzan malmutzik eztozu ezagutuko.

10.^a Eltzen zaran tokira eltzen zarala, baña, euzkotafa zarala ez aitzu ta euzkotafa lez edonun eta edonoz bixi-zadiz.